- Modificación del Decreto 154/2012, de 24 de julio, sobre el sistema de estandarización de la renta familiar en el marco de las políticas de familia
- Decreto por el que se regulan las ayudas económicas a las familias con hijos e hijas
- Modificación del Decreto 177/210, de 29 de junio, sobre ayudas para la conciliación de vida familiar y laboral

Fase de tramitación de los tres decretos: realizado el informe de la Asesoría Jurídica del Departamento, se encuentran en fase de audiencia a la espera de los informes preceptivos.

Punto 6.- Ruegos y preguntas.

A las 11,15 del día 28 de febrero de 2014 se levanta la sesión del Consejo Vasco de Familia.

LA SECRETARIA

VºBº

EL PRESIDENTE

FAMILIAREN EUSKAL KONTSEILUAREN OSOKO BILKURAREN AKTA

(2014ko otsailaren 28ko saioa)

Parte-hartzaileak:

Iñigo Pombo Ortiz de Artiñano

Gizarte Politiketako sailburuordea - Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

José Luis Madrazo Juanes

Familia Politikako eta Komunitate Garapeneko zuzendaria - Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

Lide Amilibia Bergaretxe

Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria - Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila

Beatriz Solaun Presa

Familia Kontseiluaren osoko bilkuraren idazkaria

Miguel Hurtado Pedroso

Familia Politikako eta Komunitate Garapeneko Zuzendaritza

Elena Echeberría Ochoa de Alda

Familia Politikako eta Komunitate Garapeneko Zuzendaritza

Vega Pérez Lezana

Familia Politikako eta Komunitate Garapeneko Zuzendaritza

Nerea Antia Vinos

Osasun Saila

Arantxa Aurrekoetxea Bilbao

Hezkuntzako sailburuordea - Hezkuntza eta Kultura Saila

José Ignacio Bañuelos Ibañez

Zerbitzu zuzendaria - Ingurumen eta Lurralde Politika Saila

Ane Urkiola Alustiza

Zerbitzu zuzendaria - Ogasun eta Finantza Saila

Paloma Aranceta Arilla

Gizarte Zerbitzuen zuzendaria - Arabako Foru Aldundia

María Dolores Menchaca

Emakume eta Esku-hartze zerbitziburua - Bizkaiko Foru Aldundia

Euken Barreña Caloca

Haurren Babeserako eta Gizarteratzeko zuzendari nagusia - Gipuzkoako Foru Aldundia

Peio López de Munain

Gasteizko Udaleko zinegotzia

Dorleta Goiburu

Eudelen teknikaria

Itxaso Luzárraga Monasterio

AFAEren zuzendaria

Asunción Eguren Cendolla

FAPACNEren zuzendaria

Natalia Diez-Caballero Alonso

HIRUKIDE - Familia ugariak

Igor Nabarro Brea

Elkartean - Desgaitasunen bat duten pertsonak edo horien senideak

Rosa Barrio

Ume Alaia Adopziozko Familien Elkarte

Pablo Larrabibe Bilbao

Konfekoop. - Euskadiko Kooperatiben Konfederazioa

Juan Antonio Viña Varela

Bizkaiko Gizarte-laneko Elkargoa Gizarte-laneko Elkargoaren eta Gizarte Hezkuntzako ikastetxeen ordezkaria

Etorri ez direnak:

Ana Alberdi Zubia

Emakundeko idazkari nagusia

Jone Bengoetxea Epelde

ELA - Erakunde eta Konfederazio Sindikalak

Carlos López Losada

Denon Eskola Elkarte/Arabako Ikastetxe Publikoetako Gurasoen Elkarten Federazioa

Familiaren Kontseiluaren osoko bilkura 10:10ean hasi zen 2014ko otsailaren 28an, Eusko Jaurlaritzaren egoitzan, honako gai-zerrenda honekin:

- 1.- Aurreko bilerako akta irakurtzea eta, egokitzen joz gero, onartzea.
- 2.- Familia-errenta familia-politiken esparruan estandarizatzeko sistema erregulatzen duen Dekretua aldatzeko dekretu-proiektuaren txostena ematea.
- 3.- Seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzeko dekretu-proiektuaren txostena ematea.
- 4.- Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretua aldatzeko dekretu-proiektuaren txostena ematea.
- 5.- Familiaren esparruko strategiaren plangintza 2014ko ekitaldiari begira, Familia Politikako eta Komunitate Garapeneko Zuzendaritza.
- 6.- Galde-eskeak.

Gizarte Politiketako sailburuorde Iñigo Pombok eman zion hasiera saioari, bertaratuei ongietorria emanaz eta Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburu Juan María Aburtoren agurra helaraziz, medikuaren bajagatik ezin izan delako etorri.

- 1.- Aurreko bilkurako akta irakurtzea eta onestea.

Juan Antonio Viña Varelak Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Gizarte-laneko Elkargo Ofizialen eta Euskadiko Hezitzaileen Elkargoaren ordezkaria dela zehaztuta, 2013ko uztailaren 17ko saioaren akta onetsi da.

- 2.- Familia-errenta familia-politiken esparruan estandarizatzeko sistema erregulatzen duen Dekretua aldatzeko dekretu-proiektuaren txostena ematea.

Gizarte Politiketako sailburuorde Iñigo Pombok adierazi du, Familiei Laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 Legearen arabera, familien premiak askotarikoak direla aintzat hartuta, familia-errenta estandarizatzeko sistemak ezartzea beharrezkoa dela, familia mota eta egoera desberdinei ahalik eta tratu ekitatiboena ematearren.

Sistema horiek laguntza ekonomikoetan edo familiei laguntzeko zerbitzuetan aplikatuko dira, baldin eta familia-unitatearen errenta ekonomikoaren maila bada laguntza

eskuratzeko baldintza edo prestazioa edo zerbitzua ordaintzeko partaidetza ekonomikoaren zenbatekoa zehazteko irizpide.

Familia Politikako eta Komunitate Garapeneko zuzendari José Luis Madrazok hartu du hitza eta azaldu du, aipatutako Legearen 6. artikuluan zehaztutakoa betez onartu zela familia-politiken esparruko familia-errenta estandarizatzeko sistemaren uztailaren 24ko 154/2012 Dekretua. Aipatutako Dekretuaren hirugarren artikuluan daude zehaztuta familia-errenta estandarra kalkulatzeko aintzat hartuko diren elementuak. Honako hiru hauetan laburbildu daitezke: familia-unitatearen osaera, familia-errenta eta familia-unitateari dagokion baliokidetasun-koefizientea. Bestalde, laugarren artikuluan zehaztuta dago familia-unitatearen kontzeptua, familia-errenta kalkulatzeko erabiliko dena. Bosgarrenean, familia-errenta zehazteko modua azaltzen da eta, azkenik, seigarrenean, familia-unitatearen baliokidetasun-koefizientea kalkulatzeko modua.

Familia-politiken esparruan familia-errenta estandarizatzeko sistemaren uztailaren 24ko 154/2012 Dekretuak indarrean urtebete egin eta gero, arauaren 4. eta 6. artikulua aldatzea beharrezkoa da, familia-unitatearen osaera are gehiago zehazteko eta, gizarte-egoera bereziki ahulean dagoen familia den edo ez aintzat hartzea familia-unitateko kide bakoitzari dagokion koefizientea esleitzeko garaian, lehen, arauak ez zituen-eta aintzat hartzen.

2013ko urriaren 22an, TRAMITAGUNEK eskatu zion Familiaren Euskal Kontseiluari Gizarte Politikako eta Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Komunitate Garapeneko Zuzendaritzak sustatutako familia-politiken esparruko familia-errenta estandarizatzeko sistemaren Dekretua aldatzeko dekretu-proiektuari buruzko txostena.

Jarraian, dokumentu arautzailearen kopia bana bidali zitzaion Familiaren Euskal Kontseiluaren osoko bilkurako kideei, eskatutako txostena osatzeko organo eskuduna denez, txostenari berari buruzko alegazioak, iruzkinak edota oharrak jakinarazi zitzaizaten gaiaz hitz egiteko saioa egin aurretik.

Aurkeztutako testu berrian honako aldaketak azpimarratu behar dira:

1.- Familia-unitatearen zehaztapen berria. Eskatzailea; ezkontidea, baldin eta ezkontza baliogabetuta ez badago, bananduta edo dibortziatuta ez badaude, edo etxe berean bizi den izatezko bikotekidea, betiere, eskatzailea genero indarkeriaren biktima behar bezala egiaztatua ez bada; eta etxe berean bizi diren seme-alabak, baldin eta horien gaineko zaintza eta jagoletza badagokie.

2.- Familia-unitateko kide bakoitzari dagokion koefizientea esleitzean, aintzat hartuko da familia gizarte-egoera ahulean dagoen, lehen, arauak ez zituen-eta aintzat hartzen. Mota horretako familia gisa hartuko dira honako hauek: genero-indarkeriaren biktimak eta kideren batek % 33ko edo gehiago desgaitasun egiaztatua duen kideren bat edo gehiago duten familiak, pertsona hori gurasoetako bat edo biak izanda edo izan gabe.

3.- Bestalde, maiz, hainbat arrazoi direla medio, bikotekideak etxebizitza desberdinetan daude erroldatuta, hala bada, laguntza eskatu ez duen gurasoa eskatu duenaren familia-unitate berekoa den edo ez erabakitzeke garaian, dekretuan ezkontidetasuna eta elkarren arteko seme-alaba baten edo gehiagoren gaineko zaintza eta jagoletza partekatzea

lehenetsiko ditu erroldaren aurretik. Horretarako, elkarrekin bizi den izatezko bikotearen izaera aitortu die, baina kontrakoa frogatzeko aukera emango du: elkarbizitza eza egiaztatzen duen ebazpen judiziala aurkeztu beharko da, aldi berean, adingabe(ar)en gaineko zaintza-erregimena zehaztu beharko duena.

Hirukideren (Euskadiko Familia Ugarien Elkarten Federazioa) ordezkari Natalia Diez-Caballerok proiektu arautzailean aurreikusitako aldaketen garrantzia azpimarratu du eta eskatu du sistema Eusko Jaurlaritzaren hainbat sailetan aplikatu dadila, hain juxtu, errenta-irizpide jakin batzuk betetzea eskatzen duten laguntzetan edo zerbitzuetan (etxebizitza publikorako sarbidea, hezkuntza- edo garraio-bekak, ikasleentzako ikastetxeetarako sarbidea, etab.), baita Foru Aldundietan eta Udaletan ere.

José Luis Madrazok esan duenez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak proposatutako arau-aldaketa 2015eko urtarrilaren 1ean indarrean jartzea babesten du, ekitate- eta berdintasun-printzipioak betez. Era horretan, arestian aipatutako datatik aurrera, urte berean aurkeztutako diruz laguntzeko moduko jarduerak, baldin eta txostenak landutako dekretu-proiektua aplikagarri bazaie, tratamendu bera jasoko dute, eskaerak data berean aurkeztu ez arren.

Bestela, diruz laguntzeko moduko jarduerari berari, eskaera aurkeztu den dataren arabera, araudi desberdinak aplikatuko litzaizkioke.

Familia-politiken esparruko familia-errentak estandarizatzeko sistemari buruzko Dekretua aldatzeko dekretu-proiektuaren edukiari eginiko alegazioak, iruzkinak edota oharra aztertuta, proiektu arautzailearen testuan honako berariazko kontsiderazio hauek sartzea proposatu da:

6. artikulua.- Familia-unitatearen baliokidetasun-koefizientea.

Aipatutako artikulua honela egongo da idatzita:

«1. Familia-unitatearen baliokidetasun-koefizientea kalkulatzeko, familia-unitateko kide bakoitzari dagokion koefizientea –jarraian adierazten direnetatik– aplikatu eta guztiak batu egingo dira. Hona hemen koefiziente horiek:

- f) Bi gurasoko familia-unitatea osatzen duen eskatzailea: 1,00.*
- g) Ezkontidea edo izatezko bikotekidea: 0,5.*
- h) Ezkontiderik edo bikotekiderik gabeko eskatzailea: 1,3.*
- i) Genero-indarkeriaren biktima den eskatzailea: 1,3.*
- j) Familia-unitatea osatzen duen seme edo alaba bakoitza: 0,3.*

2. Familia-unitateko kideren batek % 33ko desgaitasuna edo handiagoa balu, erakunde eskudunak onartua, dagokion koefizienteari 0,3 gehituko zaio».

Gipuzkoako Foru Aldundiak gaztigatu du mendekotasun-egoera ez dela aintzatetsi, ezpada desgaitasun-egoera. Familiei Laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 Legeak bi egoerak aipatzen dituenaz, alderdi hori ere jaso behar luke artikulua, hala esleitutako koefizienteetan, nola gainerako familia-kideen egoera zehaztean.

ERABAKIA

Eztabaidatu ondoren, Familiaren Euskal Kontseiluaren Osoko Bilkurak, aho batez, familia-politiken esparruko familia-errentak estandarizatzeko sistemaren Dekretua aldatzeko dekretu-proiektuaren aldeko ebazpena eman du, aipatutako organoak egindako kontsiderazioak txostenean jasota.

3.- Seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak arautzeko dekretu-proiektuaren txostena ematea.

Gizarte Politiketako sailburuordeak azaldu duenez, aurkeztu berri den Dekretua, nagusiki, laguntzaren zenbatekoa zehazteko errenta-irizpideak direla medio, barne hartzen dituen laguntza-lerroen hedapenak gidatuko du. Laguntzaren zenbatekoa familia-errenta estandarizatuaren arabera izan beharko da. Errenta kalkulatzeko, familia unitateko guraso(ar)en errenta-maila ez ezik, kide-kopurua ere aintzatetsi beharko da, hala nola kide guztien ezaugarriak eta berezitasunak. Dekretuaren helburua seme-alabak dituzten familientzako laguntza ekonomikoen araudi berria garatzea da. Abiapuntua da familia-errenta estandarizatuaz ezartzea diruz laguntzeko moduko egoera eta laguntza-lerro guztietan. Era berean, onuradunei dagokien zenbatekoa zehazteko faktore gisa sarbide-atalaseak ezarriko dira.

Dekretuaren zioa Eusko Jaurlaritzak familia-politikan eskuduna den Sailaren bidez emandako laguntza ekonomikoak arautzea da. Horretarako, honako jarduera-lerro hauek aurreikusi dira:

- d) Ardurapeko seme-alabagatiko laguntza ekonomikoak.
- e) Erditze edo adopzio nazional anizkoitzagatiko laguntza ekonomikoak
- f) Nazioarteko adopzioengatiko laguntza ekonomikoak

Dekretu berriak dakarren beste aldaketa garrantzitsu bat nabarmendu behar da; alegia, adin txikikoen tutoretza jarduera-ildoan sartzea.

Bestalde, Familia Politikako eta Komunitate Garapeneko zuzendari José Luis Madrazok adierazi du laguntzen zenbatekoak berdinak izango direla kasu guztietan. Familien errenta eta egoera gorabehera, 400, 500 edo 900 eurokoak izango dira.

Dekretu berriak dakartzan aldaketetako batek laguntzen bikoiztasun kasuei eragiten die, hala mendekotasun-adierazpenetan, nola laguntza behar duten adin txikikoen mendekotasun-adierazpenetan.

Azkenik, laguntza-eskaera telematikoki egin ahal izatea nabarmendu du.

2013ko urriaren 22an, TRAMITAGUNEK eskatu zion Familiaren Euskal Kontseiluari Gizarte Politikako eta Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Komunitate Garapeneko Zuzendaritzak sustatutako ardurapeko seme-alabak dituzten familiei laguntzeko laguntza ekonomikoak arautzen dituen dekretu-proiektuari buruzko txostena.

Jarraian, dokumentu arautzailearen kopia bana bidali zitzaie Familiaren Euskal Kontseiluaren osoko bilkurako kideei, eskatutako txostena osatzeko organo eskuduna denez, txostenari berari buruzko alegazioak, iruzkinak edota oharrak jakinarazi zitzaizkien gaiaz hitz egiteko saioa egin aurretik.

Ume Alaia Adopzioko Familien Elkartearen ordezkari Rosa Barriok galdetu du adopziorako laguntzetan aldaketarik egin den, hain juxtu, urtesari kopurua aldatu den.

Familia Politikako eta Komunitate Garapeneko teknikari Miguel Hurtadok azaldu du adopzioagatiko laguntzari eutsi zaiola gauzatzen deneko urtean. Hurrengo urteetan, familia-errentaren eta seme-alaben adinaren arabera kalkulatu da laguntzaren zenbatekoa.

Elkartean (desgaitasuna duten pertsonak edo beren senideak) erakundeko ordezkari Igor Nabarro Break eskatu zuen dekretuaren 9. artikuluan ageri den «pairatzen» hitza aldatzea, hala nola «desgaitasuna» hitzari «pairatu» hitza lotu zaion guztietan.

Hirukideren ordezkari Natalia Diez-Caballerok azaldu duenez, «Eusko Jaurlaritzak laguntza mota honi eusteko egindako ahalegina aitortu arren, egiaz, atzera egin da; izan ere, 2002az geroztik, zenbatekoak ez dira igo». Gehitu du dekretu berriaren bidez, kasu batzuetan, orain jasotzen dena baino gutxiago jasoko dela.

Iñigo Pombok esan du Dekretuaren edukia eta herrialdearen egoera ekonomikoa bat etorri behar direla.

José Luis Madrazok esan duenez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak proposatutako arau-aldaketa 2015eko urtarrilaren leian indarrean jartzea babesten du, ekitate- eta berdintasun-printzipioak betez. Era horretan, arestian aipatutako datatik aurrera, urte berean aurkeztutako diruz laguntzeko moduko jarduerak, baldin eta txostenak landutako dekretu-proiektua aplikagarri bazaie, tratamendu bera jasoko dute, eskaerak data berean aurkeztu ez arren.

Bestela, diruz laguntzeko moduko jarduerari berari, eskaera aurkeztu den dataren arabera, araudi desberdinak aplikatuko litzazkioke.

Era berean, laguntzen unibertsaltasunari eutsi zaiola azpimarratu zuen, justizia birbanatzaileagoa ezarri bada ere.

ERABAKIA

Eztabaidatu ondoren, Familiaren Euskal Kontseiluak, gehiengoak hala erabakita (18 boto alde, abstentzio bat), seme-alabak dituzten familientzako laguntza ekonomikoak arautzeko dekretu-proiektuaren aldeko ebazpena eman du.

4.- Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretua aldatzeko dekretu-proiektuaren txostena ematea.

Gizarte Politiketako sailburuordeak azaldu du proiektu arautzaileak bi helburu dituela. Batetik, seme-alabak eta mendeko edo muturreko osasun-larrialdiko egoeran dauden senideak zaintzeko lanaldi-murrizketa edo eszedentzia duten langileentzako laguntza-lerroa hedatzea. Laguntzaren zenbatekoa familia-errenta estandarizatuaren arabera izan beharko da. Errenta kalkulatzeko, familia unitateko guraso(ar)en errenta-maila ez ezik, kide-kopurua ere aintzatetsi beharko da, hala nola kide guztien ezaugarriak eta berezitasunak.

Bestetik, ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren II., III. eta IV. kapituluek babestutako diruz laguntzeko moduko jardueren arauketari eragiten dioten aldaketa sorta bat egingo

da. Izan ere, hobekuntzak egin daitezke, laguntzaren onuradunen familia-bizitza eta lana bateragarri egiteko aukerak handitzeko eta errazteko, laguntzak jasotzeko interesa duten pertsonak izapideetan akatsak egitea eragin ditzaketen araudiaren alderdiak argitzeko eta familia-bizitza eta lana bateragarri egiteko laguntza-programaren funtzionamendua eta kudeaketa hobetzeko.

TRAMITAGUNEK eskatu zion Familiaren Euskal Kontseiluari Gizarte Politikako eta Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren Komunitate Garapeneko Zuzendaritzak sustatutako familia-bizitza eta lana bateragarri egiteko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretua aldatzeko dekretu-proiektuari buruzko txostena

Jarraian, dokumentu arautzailearen kopia bana bidali zitzairen Familiaren Euskal Kontseiluaren osoko bilkurako kideei, eskatutako txostena osatzeko organo eskuduna denez, txostenari berari buruzko alegazioak, iruzkinak edota oharrak jakinarazi zitzaizkien gaiaz hitz egiteko saioa egin aurretik.

Familia-bizitza eta lana bateragarri egiteko laguntzen ekainaren 29ko 177/2010 Dekretua aldatzeko dekretu-proiektuaren edukia azalpenaz eta bost artikuluz osatuta dago. Horien bidez aldatzen da familia-bizitza eta lana bateragarri egiteko laguntzen ekainaren 29ko 177/2010 Dekretua, azken xedapen bartekin osatuta.

Lehen artikulua familia-bizitza eta lana bateragarri egiteko laguntzen ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren 3. artikulua aldatzen du, familia-unitatearen kontzeptua bateratu eta familiei laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 Legea onartu ondoren garatutako arau-esparru berriarekin harmonizatzen du.

Bigarren artikuluan ezarri dira familia-bizitza eta lana bateragarri egiteko laguntzen ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren II. kapituluaren aldaketak. Kapitulu hori seme-alabak zaintzeko lanaldi-murrizketa edo eszedentzia hartu duten langileentzako laguntzei buruzkoa da. Alderdi horiek indarreko Dekretuaren 4.2., 7.d), 8., 10., 11.3. eta 12. artikuluei eragiten diete.

Hirugarren artikuluan ezarri dira familia-bizitza eta lana bateragarri egiteko laguntzen ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren III. kapituluaren aldaketak. Kapitulu hori mendeko edo muturreko osasun-larrialdiko egoeran dauden senideak zaintzeko lanaldi-murrizketa edo eszedentzia hartu duten langileentzako laguntzei buruzkoa da. Alderdi horiek indarreko Dekretuaren 14.1., 17.b), 21., 22., 23., 24.3. eta 25. artikuluei eragiten diete.

Laugarren artikulua ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren V. kapituluak aldatu du. Kapitulu hori adin txikiko seme-alabentzako zaintzaileak kontratatuzko laguntzei buruzkoa da. Alderdi horiek indarreko Dekretuaren 36., 39.e), 40., 41. (kendu egin da), 43. eta 44.3. artikuluei eragiten diete.

Azkenik, bosgarren artikulua familia-bizitza eta lana bateragarri egiteko laguntzen ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren VI. kapituluari 49. artikulua gehitzen diote, familia-errenta kalkulatzeko prozedura ezarri, aldatutako Dekretuak arautzen dituen laguntzen zenbatekoak zehazteko.

Azken xedapenak, berriz, dekretu-proiektua indarrean sartuko den data dakar.

Familia Politikako eta Komunitate Garapeneko zuzendari José Luis Madrazok azaldu duenez, indarreko dekretuari egindako aldaketa garrantzitsuenak, laguntzaren zenbatekoa kalkulatzeko familia-unitatearen osakeraren eta berezitasunen arabera errenta espezializatuko irizpideak jarduera-lerro guztietara hedatzeaz gain, honako hauek dira:

1.- Lanaldi-murrizketa edo eszedentzia hartu duten langileei zuzendutako bi laguntza-lerroetan egoera berri bat hartuko da aintzat; laguntzak eskuratzeko galdatutako diruz laguntzeko moduko jardueraren gutxieneko 59 eguneko epea eten ahal izango da, greba-eskubidea gauzatzeko bada. Hala, lanaldi murriztuko egoera eten behar duten langile guztiek eskuratu ahalko dituzte laguntza horiek, beren funtsezko eskubideei muzin egin beharrik gabe, greba-eskubideari, kasu.

2.- Seme-alabak zaintzeko lanaldi murriztuko egoeran edo eszedentzian dauden langileentzako laguntza-lerroari dagokionez, diru-laguntzen gehieneko mugak handitu dira kasu jakin batzuetan; alegia, familia-bizitza eta lana bateragarri egiteko zailtasun handiak dituzten langileen kasuan. Horien artean daude erditze, adopzio edo harrera anizkoitzeko kasuak, hala nola seme-alaba batek edo batzuek % 33ko edo gehiagoko desgaitasun egiaztatua duenean.

3.- Mendeko eta muturreko osasun-larrialdiko egoeran dauden senideak zaintzeko lanaldi-murrizketa edo eszedentzia hartu duten langileentzako laguntza-lerroari dagokionez, diruz lagun daitezkeen jarduerak finkatu dira, modu orokorregian zeudenez zehaztuta: senide bat zaintzeko lanaldi murriztua edo eszedentzia eskatutako langileen kasuan, ez zitzaion erreparatzen senidearen mendekotasun-mailari.

4.- Adin txikiko seme-alabentzako zaintzaileak kontratatuzko laguntza-lerroari dagokionez, laguntza eskuratu ahal izateko beharrezko betekizunetako bat aldatu da. Hain juxtu, 39. artikulua leheneko paragrafoko e) idatz-zatia: «Familia-unitatea osatzen duten gurasoen lanaldien iraupena beren jarduera-sektorearen lanaldi osoari dagokiona izango da».

Indarreko legediak salbuespen bakarra onartzen du, eskakizun hori betetzeari dagokionez: kategoria bereziko familia ugariak. Horrelakoetan, gurasoetako batek lanaldi murriztua izan zezakeen. Hori bai, egindako aldaketaren bidez, salbuespena kategoria guztietako familia ugarietara hedatuko da, laguntza-lerro honen onuradun izan daitezkeen familia-kopurua areagotuz.

José Luis Madrazok esan duenez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak proposatutako arau-aldaketa 2015eko urtarrilaren lehen indarrean jartzea babesten du, ekitate- eta berdintasun-printzipioak betez. Era horretan, arestian aipatutako datatik aurrera, urte berean aurkeztutako diruz laguntzeko moduko jarduerak, baldin eta txostenak landutako dekretu-proiektua aplikagarri bazaie, tratamendu bera jasoko dute, eskaerak data berean aurkeztu ez arren.

Bestela, diruz laguntzeko moduko jarduerari berari, eskaera aurkeztu den dataren arabera, araudi desberdinak aplikatuko litzaizkioke.

Halaber, kontratazio egonkorra eta langileen enplegarritasuna bultzatzeko neurrien abenduaren 20ko 16/2013 Errege Lege Dekretuaren 1. artikulua eta laugarren epigrafeak artikulua 5. paragrafoko lehen lerroka aldatzen du –legezko zaintzagatiko lanaldi-murriztua haurrak 8 urte bete artekoa zen eta 12 urte bete artekoa izango da–. Hori dela-eta, familia-bizitza eta lana bateragarri egiteko laguntzen ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren aldaketa izapidetze bidean dela baliatu nahi da, dekretua bera adin txikikoak zaintzeko lanaldi-murriztuari buruz Langileen Estatutuan egun jasota dagoen araudi berrira egokitzeko. Hori horrela, 177/2010 Dekretuaren 4.1. artikulua b) idatz-zatia aldatu nahi da (txostena eragin duen dekretu-proiektuan ez da aurreikusi paragrafoa aldatzea). Aldaketarekin, langileak diruz laguntzea eragingo duen egoera honakoa izango da: «Lanaldia heren batean murriztea hamabi urtetik beherako seme-alaba(k) zaintzeko». Orain arte zortzi urtetik beherakoetan aplikatzen zen.

Laugarren artikulua.- Familia eta lana bateragarri egiteko laguntzei buruzko ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren V. Kapituluaren aldatzea.

«6.- Honela geratuko da idatzita 44. artikulua:

1. (...)

2. (...)

3. (...)

4.- Lehenengo eskaerarekin batera honako dokumentazio hau aurkeztu behar da:

a), b), c), d), e), f), g), h), i), j)

k) Familia-unitatea osatzen duten aita edo ama besteren konturako langileak badira, jarduera gauzatzen duten sektoreko lanaldiari dagokionez, haiek betetzen duten lanaldiaren iraupena egiaztatzen duen dokumentua aurkeztu beharko dute, lan egiten duten erakunde publikoak edo pribatuak egin.

Familia-unitatea osatzen duten aita edo ama norberaren konturako langileak badira, haien jarduera egiaztatu beharko dute Gizarte Segurantzaren kotizazioari dagozkion azken ordainagiriak aurkeztuz.

Kategoria bereziko familia ugarien kasuan, gurasoetako batek lanaldia murriztua badu egoera hori aipatu egin beharko da».

Euskadiko Kooperatiben Konfederazioaren ordezkariak adierazi duenez, laugarren artikulua 6. epigrafeak familia-bizitza eta lana bateragarri egiteko laguntzen ekainaren 29ko 177/2010 Dekretuaren 44. artikulua, hain zuzen, 4. paragrafoko k) idatz-zatiari, esleitzen dio aipatutako dekretuaren 11.4. artikulua g) idatz-zatian eta 24.4. artikulua g) idatz-zatian jasotako aurreikuspena, txostena eragin duen arauaren bigarren artikulua 6. epigrafeak eta hirugarren artikulua 6. epigrafeak aldatzen dutena.

Honako hau da proposatutako testua:

«Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean kotizatzen ez duten kooperatiba-sozietateetako bazkide langileen edo lan-bazkideen kasuan, honako hauek aurkeztu beharko dira:

- erakunde pribatuari edo kotizatzen duten Gizarte Segurantzaren Erregimenari egindako kotizazioan aldaketarik eragin ez duten lanaldi-murrizketetan, kooperatiba-sozietateetako bazkide langile edo lan-bazkide izatearen ziurtagiria, kotizazio mota, eta lanaldi-murrizketaren ondorioz mota hori aldatu ez izanaren ziurtagiria».

ERABAKIA

Eztabaidatu ondoren, Familiaren Euskal Kontseiluak, gehiengoak hala erabakita (18 boto alde, abstentzio bat), familia-bizitza eta lana bateragarri egiteko neurrien ekainaren 29ko 177/2010 Dekretua aldatzeko dekretu-proiektuaren aldeko ebazpena eman du.

5.- Familiaren esparruko estrategiaren plangintza 2014ko ekitaldiari begira, Familia Politikako eta Komunitate Garapeneko Zuzendaritza.

Familia-politikako eta Komunitate Garapeneko zuzendari José Luis Madrazok azaldu du Familiaren Euskal Kontseiluaren 2013ko uztailaren 17an osoko bilkurak onartutako plangintza estrategikoa egituratzen dituela familia-politikak esparru hauetan:

- Familia-bizitza, bizitza pertsonala eta lana bateragarri egitea
- Gurasotasun positiboa
- Belaunaldi arteko solidaritatea
- Laguntza ekonomikoak
- Arau-aldaketak

Familia-bizitza eta lana bateragarri egiteari dagokionez, bizikidetz- eta ekoizpen-eredu berri bat ezartzea ekarriko duen bateragarritasunari buruzko diskurtsoa egituratzea da kontua. Gainera, bateragarritasuneko eta malgutasuneko enpresa-jardueretan egindako esperientziak aztertu behar dira, hala nola bateragarritasunaren eta malgutasunaren etekinak banatu, familia-bizitzaren, bizitza pertsonalaren eta lanaren bateragarritasuna eta ordutegi-malgutasuna lan-negoiazio kolektiboan sartu, enpresek eta sindikatuek bateragarritasuna eta malgutasuna praktikan jartzeko dituzten arazoak hauteman, oztopoak gainditzeko neurriak eta laguntzak ezarri, etab.

Bestalde, nabarmentzekoa da Concilia + webguneak 31.300 bisita izan dituela 2013an. 2013 urteko kontsultak: 263 kontsulta, % 92, lanaldi-murrizketei buruz 2011ko azarotik 2014ko abendura arte 3.008 enpresak egin dute bateragarritasun-egoeraren gaineko autodiagnostikoa.

Gurasotasun positiboari buruzko online ikastaroak familiekin harremanetan dauden **profesionalentzako** (gizarte zerbitzuetako, hezkuntzako, osasuneko, etab., profesionalak).

Ikastaroak EHUren Psikologia Ebolutiboko Sailak gainbegiratuko du.

Orain arte, 200 profesional prestatu dira 0 eta 2 urte arteko haurrak dituzten familiei buruzko ikastaroan. 2014an, 280 profesional trebatzea aurreikusi da.

0 eta 2 urte arteko haurrak dituzten familiei buruzko ikastaroa eskainiko da, 2 eta 6 urte arteko haurrak dituztenetara zabalduko dena.

Belaunaldi arteko elkartasunari buruz egindako ekintzak:

- Maiatzaren 15ean, Familiaren Nazioarteko Egunez, aiton-amonen irudiari merezi bezalako balioa ematera bideratutako jardunaldia gauzatuko da.
- Hezkuntza Sailarekin batera esperientzia pilotuak gauzatzea honakoetarako:
 - o Aitona-amonen bizitzaren lekukotza eta balioak Hezkuntzaren sisteman sartzekoa.
 - o Aiton-amonen eta haurren/nerabeen arteko ezagutza-trukeak gauzatzea.

Seme-alabak dituzten familientzako diru-laguntzak

2013an gauzatutako gastua: 30.620.900 euro (11.695.100 euro 2012ko aurrekontuari dagozkio)

34.942 espediente ordaindu ahal izan dira 2013an gauzatutako gastuarekin

Familia-bizitza eta lana bateragarri egiteko laguntzak - Langileentzako laguntzak

2013an gauzatutako gastua: 30.229.295 euro (13.364.143 euro 2012ko aurrekontuari dagozkio)

31.293 espediente ordaindu ahal izan dira 2013an gauzatutako gastuarekin

Familiaren arloko irabazi asmorik gabeko erakundeentzako laguntzak: 397.061 euro (2013ko deialdia)

Familiaren arloko diru-laguntza izendunak: 69.821 euro

Arau-aldaketak

- Familia-politiken eremuan familia-errenta estandarizatzeko sistemari buruzko uztailaren 24ko 154/2012 Dekretua aldatzea.
- Seme-alabak dituzten familientzako laguntza ekonomikoak arautzen dituen Dekretua.
- Familia-bizitza eta lana bateragarri egiteko laguntzen ekainaren 29ko 177/2010 Dekretua aldatzea.

Hiru dekretuen izapidetze-fasea: Sailaren Aholkularitza Juridikoak txostena eginda, audientzia-fasean daude, dagozkien txostenak noiz osatuko zain.

6. puntua.- Galde-eskeak.

FAPACNEren lehendakari Asunción Egurenek eskatu du elkarteei familiaren arloan aurreikusitako jardueren berri ematea.

Natalia Diez-Caballerok Familiaren Behatokiari buruz galdetu du. José Luis Madrazok erantzun dio horiek Sailaren barruan egongo direla eta irudi korporatiboa bakarrean bilduko direla denak.

2014ko otsailaren 28an, 11:15ean, bukatutzat eman da Familiaren Euskal Kontseiluaren saioa.

IDAZKARIA

Ontzat emana

PRESIDENTEA